

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Getxoko Udala****2019ko ekitaldirako Zerga Egutegia**

2019ko martxoaren 29an Alkatetzak agindutako 1713/2019 Dekretuaren bidez ondorengo Zerga egutegia onartu da 2019ko ekitaldirako:

- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ), Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ), Ibilgailuak espaloien bidez finken barrura sartzeko eta apar-kalekuak erreserbatzeko tasa (Pasabideak), Taxien aparkalekua erreserbatzeko tasa, Kiosko bidez bide publikoa okupatzeko tasa, Ibilgailuak udal bide publikoetan aparkatzeko tasa (egoiliarren urteko txartelak: TAO.), kutxazain automatikoak, terraza bidez bide publikoa okupatzeko tasa.

- *Ez helbideratutako ordainagiriak:*

Borondatez ordaintzeko epea: Ekainaren 3tik uztailaren 3ra arte.

- *Helbideratutako ordainagiriak:*

Helbideratutako ordainketa borondatezko epea amaitu ondorengo lehenengo egun baliodunean (uztailaren 4a) egingo da. Helbideratzeko eskabideak eta aldaketak apirilaren 12ra arte onartuko ditugu.

- *Nahierako ordainketa aukeraren ordainagiriak:*

Helbideratutako ordainketa ondorengo epeetan egingo da:

- 4 epeko aukera: 06/03, 07/03, 09/13 eta 11/04.
- 2 epeko aukera: 06/03 eta 10/24.
- 1 epeko aukera: 09/13.

Nahierako ordainketa egiteko eskaerak eta bere aldaketak apirilaren 12ra arte egin daiteke.

Epemuga jaiegunean egokitzen bada, epemuga horren hurrengo lehenengo lanegunera pasako da.

- Berau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea adostea.

Getxon, 2019ko martxoaren 29an.—Ogasuneko zinegotzi-delegatua, Ignacio Uriarte Gorostiaga